



**GASTEIZKO
UDALAREN
IV. GAZTE
PLANA**

2

Bizitzarako eta
Berdintasunerako
Hezkuntza

Aztergai dugun gaztaroa (12 urtetik 30/35era bitartekoa) gure bizitzako etapa bat da, eta, etapa horretan, prozesu bat biziko du pertsonak, bere nortasuna eraikitzeko eta sendotzeko, gizarteratzeko moduan aurrera egiteko eta komunitatean espazio bat konkistatzeko prozesu bat, non bere bizi-proiektua garatu ahal izateko aukera izango duen. Testuinguru horretan, prozesu hori ahalbidetuko duten baliabideak sortu behar ditu Gazte Planak, eta esperientzia esanguratsuak eskaini behar dizkio bere baitan eta gizartearen ikuspegitik balio handia duen pertsona gisa hezteko.

Bestalde, gazteriaz ari garenean, ez dio erreferentzia kolektibo homogeen bati egiten; adinaren, lan-egoeraren, sexuaren, egoera sozioekonomikoaren, jatorriaren, familia-egoeraren eta abarren arabera egoera desberdinetan dauden pertsona gazteez ari gara. Aniztasun horren aurrean, baliabideak sustatzeko lan egin behar du Gazte Planak, pertsona horiek guztiak aukera berdina izan ditzaten, baldintzak edo egoerak direnak direla ere, eta desabantaila-egoerak ahal beste minimiza ditzagun.

Horregatik, bi ildo nagusitan lan egitea aurreikusten da esparru honetan: alde batetik, hezkuntza, prestakuntza eta prebentzio unibertsalarekin eta gizarteratzearekin lotutako gaiak jorratuko dira, hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloko baliabideen bidez; eta, bestetik, gazteek osatutako zenbait kolektiboren desabantaila-egoera errealean aurrean esku hartuko da.

Laburbilduz, elkarrekin lotutako bi arlo ditu lan-ildo honek: **“Bizitzarako hezkuntza”**, ikuspegi unibertsaletik hezkuntzaz, prebentzioaz eta jarduketaz arduratzen dena, eta **“Desabantaila-egoeren aurreko jarduketa”**, esku-hartze espezifikokoak lantzen dituen.

Bestalde, bi erronka nagusiren inguruan lan egiten dugu:

ERRONKA

1. “Gazte kritikoak, arduratsuak, solidarioak eta beren herritartasuna garatzeko balio eta tresnak dituztenak”.

2. “Gasteiz, berdintasuna sustatzen duen hiria”

I. ERRONKA

“GAZTE KRITIKOAK, ARDURATSUAK, SOLIDARIOAK ETA BEREN HERRITARTASUNA GARATZEKO BALIO ETA TRESNAK DITUZTENAK”

Erronka honen barnean, eskola-eremutik edota eskola formaletik harago pertsonaren hezkuntzan eragiten duten alderdi guztiak bildu nahi dira; barnean hartzen ditu hezkuntza ez-formala eta informala ere, hots, familia-ingurunearen, lagun eta kideen, komunikabideen eta beste eragile batzuen jokabide, jarrera eta jokatzeko moduetatik datorrena; azken finean, eragina baitute horiek guztiak gazteengan, eta jokabide eta jarrera zehatz batzuk agerraraz baitituzakete.

Desabantaila-egoerak saihesteko aukera bikain bat pertsonari herritar gisa bere gaitasunak erabat garatzeko nahikoa baliabide ematea da, eta pertsonaren baliabide oinarrizkoenatariko bat hezkuntzarekin dago lotuta.

Esparru honetan, pertsona izango da gure ardatza, pertsona izango baita berdintasunean garatzeko eta hazteko behar dituen baliabideak sustatzen, hobetzen edo sendotzen dituzten esku-hartzeen hartzailea.

Bizitzarako hezkuntzaren esparru honetan, askotarikoak dira esku-hartzeen xede diren jarduketa-eremuak. Horregatik, honako **helburu** hauen arabera antolatu ditugu:

HELBURUAK

- 1** Gazteek beraiek kudeatutako aisialdiko guneak eta hiriko gainerako interesak normaltasunez gara daitezen lortzea.
- 2** Bizimodu osasungarriak sustatzea.
- 3** Sentiberatzea mikro-indarkeriazko egoeren aurrean, eta horiei, erantzunkidetasunari eta errespetuzko harreman-eredu osasungarriari buruzko informazioa ematea.
- 4** Aniztasunaren kulturari buruzko ideia sustatzea, norberaren ezagutzatik, aniztasun-kategorien aitopenetik, elkarren errespetutik eta lankidetzatik abiatuta.
- 5** Emakumei banakako eta taldekako tresnak ematea, indarkeria matxistari aurrea hartzeko eta aurre egiteko.
- 6** Gazteen artean ingurumenarekiko errespetua eta jokabide iraunkorrak sustatzea.
- 7** Aniztasunean oinarritutako bizikidetzaren alde egiten duten jarduketak eta, beraz, pertsonen eta kolektiboen bazterketaren eta horienganako indarkeriazko jarreraren aurka egiten duten jarduketak sustatzea (makro- eta mikro-indarkeria).
- 8** LGBTI kolektiboa ikusaraztea.

UDALAREN JARDUKETAK:

- Esparru honetan lan egiten duten ekintzak eta programak garatzen jarraitzen du **Gazteria Zerbitzuak**, eta, horretarako, hainbat aholkularitza-zerbitzu jarri ditu gazteen esku, hala nola Sexualitateari buruzko Aholkularitza eta Aholkularitza Psikologikoa. Arreta pertsonala eta sentiberatze-jarduerak eskaintzen dituzte biek ala biek ikastetxeetan, eta Udalaren Hezkuntza Gidan biltzen dira horiek guztiak. Berdintasun Zerbitzuarekin lankidetzan, honako jarduera hau ere eskaintzen zaie ikastetxeei: "Erantzunkidetasuna: rolak eta ikasketen aukeraketa, genero ikuspegitik".
- **Garapenean Laguntzeko Zerbitzuarekin** lankidetzan, "Gazteak, elkartasuna eta bizikidetzatza" proiektua abiaraziko da; gazteen arteko bizikidetzatza lantzen du ikastetxe-mailan, auzoan eta hirian, beste herrialde batzuetako errealitateak eta gure inguruneko errealitatea ezagutzuz.
- Ingurumen-iraunkortasunaren esparruan, Agenda 21 planaren inguruan egiten den lan guztia nabarmendu behar da, bai eta **Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak** sustatzen dituen hezkuntza-lanak eta bereziki mugikortasun iraunkorra (bizikletaren bidezkoa, batik bat) bultzatzera zuzentzen diren jarduketa guztiak ere.
- Gainera, **Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoak** aholkuak eskaintzen dizkie gazteei beren helburuak lortzeko baliabideei eta dituzten beharrei buruz, hainbat arlotan, hala nola hezkuntzan, enpleguan, etxebizitzan, hizkuntzen esparruan, laguntza ekonomikoen inguruan, aisialdiko jardueren inguruan, gazte-txartelen inguruan eta beren intereseko beste edozein esparrutan. Banaka nahiz taldeka eskaintzen zaie aholkularitza hori.

- **Hezkuntza Zerbitzuak** Hiri Hezitzailea programa eta Hezkuntza Gida eskaintzen ditu; hiriko ikastetxe guztiei bidaltzen zaie udaleko sail eta zerbitzuek prestakuntzaren arloan eskaintzen dituzten jarduera guztiak txukun-txukun jasotzen dituen gida hori (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Derrigorrezkoaren Ondoko Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako gazteei bideratuta).
Elkartasunaren eta sentsibilizazioaren esparruan, Azoka Txikia proiektu solidarioa nabarmendu behar da, solidaritate eta berdintasun balioak lantzen dituen proiektua, hain zuzen.
- **Osasun Publikoaren Zerbitzuak** hainbat ekintza eskaintzen ditu gazteen artean ohitura osasungarriak sustatzeko eskola-eremuan, eta Udalaren Hezkuntza Jardueren Gidan biltzen dira horiek guztiak, hala nola “Pilak kargatu hamaiketako eta askariarekin”, “Ondo elikatu”, “Oinarrizko bizi euskarria eta BBB lantegiak”, “Egin ezazu minbiziaren kontra: eguzkitatik babestu”, “Ondo lo egin, hobeto bizitzeko”, “Osasun mentala: sentsibilizazioa eta prebentzioa”, “Bisitak gertuko nekazari eta abeltzaineri”...
- Horrez gain, “Gasteiz, drogarik gabeko heziketa-esparrua” programa ere koordinatzen du; mendekotasunen esparruko prebentzio unibertsalarekin eta selektiboarekin lotutako ekintzak biltzen ditu programa horrek. Eta gazteekin lan egiten duten bitartekariei zuzendutako prestakuntza-programa ere sustatzen du Droga Mendekotasunaren aurkako Tokiko Ekintza Planaren esparruan, hots mendekotasunen esparruko udal-jarduketa guztiak koordinatzen eta gidatzen dituen plan horren barnean. Hiriko gazteen lonjetako kontsumoei lotutako arriskuak murrizteko esku-hartze zehatz bat ere egiten da horien barnean, gazte askorentzat lonja horiek baitira aisialdiko guneen erreferentzia
Azkenik Jarduera Fisikoaren Udal Mahaiaren koordinazioaz ere arduratzen da.
- **Komunitate Jardueraren Zerbitzuak** durtero komunitate programazioa garatzen du hainbat proiektuetan zonaldeko oinarrizko zerbitzuen bitartez. Hiru programa ditu barruan: Gizarte informazioa eta sentsibilizazioa, Gizarte kompetentzia eta bakoitzaren garapena, Parte hartze komunitarioa eta laguntza solidarioa. Programa bakoitzaren ekintzen barruan, haietako asko nerabeentzako eta gazteentzako dira: Baloreen hezkuntza proiektua (“Belaunaldien arteko lantegia”, “Ekojoku”), Osasunerako hezkuntza proiektua (“Gazteak martxan”, “Ongizate lantegia”, “Gazteentzako sukaldaritza”, “Bizitza osasuntsua”, “Erlazio afektibo sexualak”) eta Trebetasun sozialen eta kognitiboen proiektua (“Ikasteko txokoa”, “Ikasteko motibazioa” eta umeentzako jokoak).
- **Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzua** hiriko bizikidetza eta aniztasunerako plana lantzen ari da, eta gazteak kontuan hartuko ditu aurreikuspenen arabera, bai diseinuan eta bai etorkizunean izango duen garapenean. Horrez gain, proiektu pilotu gisa, abian jarri du Oroimena Bizigune programa, memoria historikoa berreskuratzeari buruzko programa; gure iragan hurbila aztertuko dute gazteek prozesu horretan, eraikitze eta indarkeriaren eta gatazkaren inguruan hitz egiteko.
- **Berdintasun Zerbitzua**, berriz, Beldur Barik programa garatzen ari da, gazteen artean berdintasuna sustatzeko; eta hainbat esku-hartze ere bidean ditu, Ahalduntze Eskolaren programazioan biltzen diren pertsona gazteentzat. Berdintasun Plana lantzen ari da, eta zuzen-zuzenean Gazte Planarekin lotuta dago plan hori, gazteen kolektiboari dagokionez.
- **Kirol Zerbitzuak** gizarte-etxeetan nahiz Kirol Klub programaren bidez bere kirol-eskaintza eginez jarraitzen du; eta badu zuzenean gazteentzat diseinatutako programa bat ere: “Kirol bidean”.

2. ERRONKA

GASTEIZ, BERDINTASUNA SUSTATZEN DUEN HIRIA

Erronka honek hiria du ardatz, hiria hainbat xedetarako ahalmena duen eragile gisa hartuta, gazteen artean desabantaila-egoerak minimizatzeko, horrelako egoerak eragiten dituzten faktoreak neutralizatzeko edota berriro bideratu eta gainditzeko ahalmena baitu hiriak. Hau da, hiriak aukera-aukerako baldintzak sustatuko ditu, guztiak berdintasunean garatzeko eta hazteko. Hezkuntza-baliabide onek minimizatu egin dezakete garapenerako eta gizarteratzeko aukerak murrizten dituzten desabantaila-egoerak sortzeko arriskua.

HELBURUAK:

Honako **helburu** zehatz hauetan oinarrituko dira 2017-2019 eperako xedeak:

- 1** Gaitasun sozial eta pertsonalak garatzea, 12 urtetik 30era bitarteko gazteen egokitzapen-prozesuak hobetzeko.
- 2** Sarean lan egiteko esperientziak sortzea, gazteei begira sistemak berak gizarteratzeko duen ahalmena maximizatzeko.

UDALAREN JARDUKETAK:

- I. Gazte Planean jada, zenbait egoeraren aurrean prebentzio-izaerako lan koordinatua egin beharra planteatu zen, eta esku-hartze zehatzagoak egin beharra ere sumatu zen, desabantaila zekarten faktore batzuk eta hiriko gazteen artean edo kolektiboetan arriskutsuak izan zitezkeen jokabide batzuk hauteman ondoren.
II. Gazte Planak diziplina anitzeko txosten bat egin zuen, egoerak eremu katalogatze-ko; eta, eremu horietan, gazteek bizi zituzten egoera larrienak zehaztu zituen.
- Horrelako desabantaila-egoeren eta jokabide arriskutsuen aurrean, eragile eta baliabideen mapa bat egin zuen III. Gazte Planak, eta esperientzia bat garatu zuen Gazalbide, Pilar eta Txagorritxu auzoetan; beste eragile batzuekin koordinatuta lan egin zen, hezkuntzaren esparruan batez ere.
- Mugatua da udalaren zeregina eskumenen ikuspegitik, eta, horregatik, funtsezkoa da eremu hauetan eskumenak dituzten gainerako eragileekin koordinatuta lan egitea, hala nola Foru Aldundiarekin, Osakidetzarekin, Ertzaintzarekin, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin... Eta, noski, udalerriko hainbat ingurutan lan egiten duten eragile sozialekin ere koordinatuta lan egin beharko da.
- Erronka honetan jaso diren ekintzez gain, esparru honen errealitatearen ezagutzari buruzko beste batzuk ere proposatu dira IV. Gazte Plan honetan, Tresnen 6. lerroan txertatu direnak, gazteen errealitatearen Behatokiko ekintzen artean. Besteak beste, gazte jendearen azterketa ludopatiarekin lotuta eta justiziaren esparruan, eta Gizarte Politiken Sailean lehendik dauden lantaldeekiko koordinazioa, ezegonkortasun sozialeko faktore guztiak ezagutzeko.

- Absentismoaren eta eskolatu gabeen kasuan, lanean ari dira **Hezkuntza Zerbitzuan**, sailen eta erakundeen arteko koordinazioan oinarrituta, eta, berroren bidez, jarduketa-protokolo bat (udalekoa eta erakundeen artekoa) aplikatzen da halako egoeretan, eta familiekiko eta guraso-elkarteekiko lana sustatzen duten ekintzak garatzen dira (guraso-eskolak, guraso-elkartei zuzendutako laguntzak), arazo horiek murriztu ahal izateko. Ildo horretatik, lehentasuna ematen zaie familien eta ikastetxeetako guraso-elkarteen eskariei, Indize Sozioekonomiko eta Kultural (ISEK) baxua edo ertain-baxua dutenak kontuan hartuta, bai laguntzak ematerakoan eta bai prestakuntza-jardueretan.

Ikasturte honetan, proba pilotu bat egiten hasi dira zenbait ikastetxetan, eta Gazte Planak ere esku hartuko du neurri batean, Pilar auzoan egindako lanari jarraipena emanaz.

- **Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak** ere jorratzen du gazteen errealitatea, hainbat programaren bidez.

Desabantaila-egoerak eta zaurgarritasuna murrizteko, Kale Heziketako Programa dute oinarriko gizarte-zerbitzuen atalean, egoera arriskutsuan edo zaurgarrian egon daitezkeen nerabe eta gazteak hautemateko eta esparru horretan esku hartzeko. Ekintza zehatzagoak biltzen dira programaren barnean, eremuen edo xede dituzten kolektiboen arabera antolatuta, eta egokitzen doaz ekintza horiek, unean uneko beharren arabera.

Haur eta Nerabeentzako Udal planean baliabide eta programa batzuk eskaintzen dira bai gazteei bai beren familiei.

- Prebentzio eta sustapen programak: alde batetik familiei zuzendutako ekintzak parentalitate positibo eremuan oinarrituta, indartzeko eta hobetzeko bere konpetentzien alde helburuan, eta beste aldetik gazteei zuzendutako ekintzak pertsonalak eta sozialak diren konpetentziak sustatzeko helburuan.
- Praktika-onak programa eta Emozio programa) familiei laguntzeko programak: seme-alabak zaintzeko, hezteko, eta arreta emozionalerako funtzioak lantzeko ekintzak (familientzako laguntza psikologikoa programa, eta Prologo programa)
- Babesgabetasun egoeretan esku hartzeko ebaluazio programa, psikoheziketa laguntza, Erresilientzia familia barruan programa eta sexu-abusu kasuetan aholkularitza psikologikoa programa.
- Familiak babesteko programak: LGE programa (Laguntza eta Garapen Egokituko programa), Salburua programa, Bidatu, gizarte eta hezkuntza zentroak, eta lanerako prestakuntzarako gizarte eta hezkuntza zentroa

Egoera zaurgarrietan dauden gazteen emantzipaziorako ikaskuntza sustatzeko asmoz eta gizarte-babeseko sistemetatik askatzeko prozesuak bultzatuz, eutsi egin zaie “Valeo” eta “Gerokoa” programei, eta etxe funtzioaletan hartu diren gazteei zuzentzen zaizkie programa horiek (egoitza-harrerarako udal-sarea), edota familia-harreraren erregimenean hartu direnei. Horrez gain, laneratzeko eta gizarteratzeko Gizarteratu programa ere nabarmendu behar da (gazteentzat hau ere).

Desabantailaren esparruan, haurtzaro eta nerabezeroaren arretarako protokoloaren esparruan koordinatuta lan egiten da, Udaltzaingoarekin, Arabako Foru Aldundiarekin, eta Osakidetza eta haren lehen mailako arretarako sarearekin lankidetzan. Horrez gain, udal-langileak prestatzen dira haur eta nerabeen babesgabetasunaren arloan, gazte horiei edo horien familiei arreta-zerbitzu egokia eskaintzeko.

- **Udaltzaingo Zerbitzua:** ikastetxeetan bide-hezkuntzako programak eskaintzen eta zirkulazio-istripuen prebentziorako jarduerak garatzen jarraitzen du. Droga-kontsumoari dagokionez, eskola inguruko zaintza-planari eutsi zaio, eskola inguruneko arrisku-egoerei eta droga-eskaintzei aurrea hartzeko, eta drogei buruzko informazio- eta arreta-bulegoak “Pen Drive Kritikoa” proiektua du abian, drogen hasierako kontsumoekin lotutako esperientzietan hezkuntzako baliabide psikologiko gisa.

I. ERRONKA

Gazte kritikoak, arduratsuak, solidarioak eta beren herritartasuna garatzeko balio eta tresnak dituztenak

HELBURUAK

EKINTZAK

<p>1 Gazteek beraiek kudeatutako aisialdiko guneak eta hiriko gainerako interesak normaltasunez gara daitezzen lortzea</p>	<p>L.2-1 GAZTEEN LONJEI BURUZKO ORDENANTZA</p>
<p>2 Bizimodu osasungarriak sustatzea</p>	<p>L.2-3 DROGEI BURUZKO INFORMAZIO ETA DEBATERAKO TOPAGUNEA</p> <p>L.2-4 KONTSUMOEI ETA BIDE-SEGURTASUNARI BURUZKO KANPAINA</p>
<p>3 Sentiberatzea mikro-indarkeriazko egoeren aurrean, eta horiei, erantzunkidetasunari eta errespetuzko harreman-eredu osasungarriei buruzko informazioa ematea</p>	<p>L.2-2 “ZURE ESKU ERE BADAGO” KANPAINA – II. ETA III. EDIZIOAK</p> <p>L.2-6 INDARKERIA MATXISTA OROREN AURKAKO KANPAINA</p>
<p>4 Aniztasunaren kulturari buruzko ideia sustatzea, norberaren ezagutzatik, aniztasun-kategorien aitortzetatik, elkarren errespetutik eta lankidetzatik abiatuta</p>	<p>L.2-5 GAZTE-IKUSPEGIA, BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNERAKO PLANEAN</p>

HELBURUAK

EKINTZAK

5 Emakumei banakako eta taldekako tresnak ematea, indarkeria matxistari aurrea hartzeko eta aurre egiteko	L.2-7 AUTODEFENTSA-LANTEGIAK EMAKUME GAZTEENTZAT
6 Gazteen artean ingurumenarekiko errespetua eta jokabide iraunkorrak sustatzea	L.2-8 SENTSIBILIZAZIOA KLIMAREN KRISIAREN ETA KLIMA-ALDAKETAREN AURREAN
7 Aniztasunean oinarritutako bizikidetzaren alde egiten duten jarduketak eta, beraz, pertsonen eta kolektiboen bazterketaren eta horienganako indarkeriazko jarrearen aurka egiten duten jarduketak sustatzea (makro- eta mikro-indarkeria)	L.2-9 BERARIAZ GAZTEEI ZUZENTZEN ZAIEN ZURRUMURRURIK EZ PROGRAMAMA L.2-10 ANIZTASUNAREN ALDEKO PROIEKTUEN SUSTAPENA L.2-11 LGTBI+FOBIAREN AURKAKO KANPAINA L.2-12 GAZTEAK BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNA
8 LGTBI kolektiboa ikusaraztea	L.2-13 SEXU-AHOLKULARITZA ETA PSIKO-AHOLKULARITZA INDARTZEA, LGTBI + KOLEKTIBOKO GAZTEEI ORIENTABIDEA ETA BABESA EMATEKO BALIABIDE DIREN NEURRIAN

2. ERRONKA

Gasteiz, desabantaila sozialeko egoerak minimizatzen dituen hiria

HELBURUAK

- 1** Gaitasun sozial eta pertsonalak garatzea, 12 urtetik 30era bitarteko gazteen egokitzapen-prozesuak hobetzeko
- 2** Sarean lan egiteko esperientziak sortzea, gazteei begira sistemak berak gizarteratzeko duen ahalmena maximizatzeke

EKINTZAK

- L.2-14 HEZKUNTZA-KONPENTSAZIOA (ESPERIENTZIA PILOTUA)
- L.2-16 PAUSOZ PAUSO
- L.2-15 ADIMENA ZABALTZEN
- L.2-17 INFORMAZIOA, MOTIBAZIOA ETA BIDEA ERRAZTEA (GAZTE PLANA)

L.2.1 EKINTZA

Gazteen lonjei buruzko ordenantza

Gazteen erakundeekin, gazteekin eta gazteen lonjen gaiarekin zerikusia duten gainerako eragileekin, udal-ordenantza bat egingo da, horien erabilera arautzeko eta bai erabiltzaileei eta bai gainerakoei (jabeak eta auzokoak) halako lasaitasun eta berme bat emateko, berorien egoeraren aurrean.

Hori egin ondoren, ordenantzaren eta gai horri buruzko aholkularitza-baliabideen berri emango da (batez ere gazteei zuzentzen zaien aholkularitza juridikoa nabarmenduz).

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saila

2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
	3.000 €	
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
	3.000 €	

L.2.2 EKINTZA

“Zure esku ere badago” kanpaina – II. eta III. edizioak

Kanpaina honen lehen edizioa 2015-2016an egin zen, gazteen artean errespetuan eta berdintasunean oinarritutako sexualitate osasungarria sustatzeko xedez.

Komiki gehiago sortuko dira pertsonaia berak erabiliz, gizezkoen pertsonaiak sartuz eta gai berriak jorratuz:

- Nerabezaroan ama izateko desira
- Haurdunaldiaren borondatezko etendura
- Sexuen arteko desoreken arteko borrokan esku hartzen duten mutilak
- Maskulinitate- eta feminitate-eredu askotarikoak
- Mutiltan edo neskatan egiteko bide egokiak
- ...

Gida labur bat ere landuko da gazteen ikuspegitik, harreman osasungarriari eta bikotean sor daitezkeen indarkeria-egoerak zokoratzeko moduei buruz.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Berdintasunerako Zerbitzua

2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
9.000 €	6.000 €	
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
9.000 €	6.000 €	



L.2.3 EKINTZA

Drogei buruzko informazio eta debaterako topagunea

Drogen arloko proiektu bat da, prebentzio-izaerakoa, eta, jarduketa-ardatz gisa aisialdia eta osasuna hartuta, informazioa emateko, adierazteko, eta arriskuak murrizteko gune bat da, aisialdiko jardueren eta gazteen testuinguruan, betiere. Drogei eta drogek aisialdiarekin eta osasunarekin duten erlazioari buruzko gogoeta bultzatu nahi da, eta informazio objektiboa eskaini nahi da, gazteak erabakiak hartu behar dituztenerako gaitzeko.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Osasun Publikoaren Zerbitzua

	2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA	3.000 €	3.000 €	3.000 €
BESTE SAILEN AURREKONTUA			
AURREKONTUA GUZTIRA	3.000 €	3.000 €	3.000 €

L.2.4 EKINTZA

Kontsumoei eta bide-segurtasunari buruzko kanpaina

Gazteen arteko hizkera eta komunikabide egokiak erabiliz, substantzien kontsumoaren eta bide-segurtasunaren artean dagoen zuzeneko harremanaren berri emango zaie gazteei, auto eta ibilgailuetan egiten diren lekualdaketei begira. Garrantzitsua da mezu paternalistetatik eta helduen ikuspegitik aldentzea eta gazteei zuzentzea, gazteen parte-hartzea ere sustatuz.

Arduraduna: Udaltzaingoa

Erantzunkideak: Gazteria Zerbitzua

	2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA	3.000 €	3.000 €	3.000 €
BESTE SAILEN AURREKONTUA	500 €	500 €	500 €
AURREKONTUA GUZTIRA	3.500 €	3.500 €	3.500 €

L.2.5 EKINTZA

Gazte-ikuspegia, bizikidetza eta aniztasunerako planean

Udalerriko bizikidetza eta aniztasunerako planak gazteen behar eta ezaugarriak bildu behar ditu, plan horren definizioan eta zehaztapenean gazteen berezitasunak txertatu ahal izateko.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzua

2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		

L.2.6 EKINTZA

Indarkeria matxista ororen aurkako kanpaina

Azaroaren 25a emakumeen aurkako indarkeriaren eguna denez, indarkeria matxista orori eta gizarte-mailako konplizitateei buruzko kontzientziazio-kanpaina bat egingo da.

Gazteei zuzenduko zaie bereziki.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Berdintasunerako Zerbitzua

2017		2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
14.000 €		10.000 €
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
14.000 €		10.000 €



Udal-baliabideak (giza baliabideak eta baliabide teknikoak, udalaren instalazioak eta bitartekoak...)

L.2.7 EKINTZA

Autodefentsa-lantegiak emakume gazteentzat

Autodefentsa-lantegi feministak eskainiko zaizkie emakume gazteei, bizipenetan oinarritzen diren horrelako lantegietan belaunaldien artean sor daitezkeen urruntzeak saihestuz.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Berdintasunerako Zerbitzua

	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
	2.000 €	2.000 €
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
	2.000 €	2.000 €

L.2.8 EKINTZA

Sentsibilizazioa klimaren krisiaren eta klima-aldaketaren aurrean

Toki-mailan nahiz maila globalean horrek izan ditzakeen ondorioak eta horiei aurre egiteko eta egokitzeko metodoak ezagutaraziko dira.

Hainbat ekintza bilduko dituen kanpaina bat egingo da, gazteengan eta haien ohituretan nahiz klimaren krisiarekin eta horren ondorioekin lotuta dituzten jokabideetan oinarrituta.

Murritzeko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko ohiturak ere txertatuko dira.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Ingurugiro Gaietarako Ikastegia

	2018	
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
	14.000 €	
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
	14.000 €	

L.2.9 EKINTZA

Berariaz gazteei zuzentzen zaien Zurrumurrurik ez programa

Oro har biztanleria osoari eskaintzen zaion programa oinarri hartuta, berariaz gazteei zuzenduko zaien zurrumurruen aurkako programa bat garatuko da, gazteen hizkera eta gazteen komunikabide eta espazioak erabiliz.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzua

		2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
		10.000 €
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
		12.000 €
AURREKONTUA GUZTIRA		
		22.000 €

L.2.10 EKINTZA

Aniztasunaren aldeko proiektuen sustapena

Aniztasuna eta aniztasun mota oro sustatzen duten proiektuak (tokikoak, probintziakoak, autonomia-erkidegoetakoak) ezagutaraziko dira, Gasteizko gazteentzat onuragarri izan baitaitezke; adibidez, Gune Anitza Zigilua, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarena (EGK).

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

	2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA			
			
BESTE SAILEN AURREKONTUA			
			
AURREKONTUA GUZTIRA			
			



Udal-baliabideak (giza baliabideak eta baliabide teknikoak, udalaren instalazioak eta bitartekoak...)

L.2.II EKINTZA

LGTBI+fobiaren aurkako kanpaina

Kolektibo hori ikusgarriago egiteko asmoz, kolektibo horrekiko fobiaren aurkako kanpaina bat egingo da, zuzeneko mezuek zabalduz eta aniztasuna sustatzen duten mezuek positiboak erabiliz.

Kanpaina aurkezteko, LGTBI+fobia zer den azal daiteke alde batetik, maiatzaren 17a zer egun den aintzat hartuta, eta, bestetik, aniztasuna babesteko ditugun aukera guztiak susta ditzakegu, ekainaren 28aren inguruan.

Kanpaina bat diseinatu eta abiaraziko da 2017an, eta kanpaina horren edizio berria egingo da 2019an.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Bizikidetzaren eta Aniztasun Zerbitzua, Berdintasunerako Zerbitzua

		2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
		14.000 €
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
		14.000 €

L.2.I2 EKINTZA

Gazteak bizikidetzaren eta aniztasuna

Lanbide Hezkuntzako, Batxilergoko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan egiteko programa, elkarbizikidetzaren eta elkartasuna lan egiteko gazteen artean bai auzo mailan, bai hiri mailan, beste herrietako errealitatearen eta gure inguruko ezagutzaren bidez. 2017 kanpaina pilotu bezala hasi eta emaitzak ikusita, hurrengo urteetan errepikatzeke aukera aztertu.

Arduraduna: Garapen Zerbitzua

Erantzunkideak: Gazteria Zerbitzua

	2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA			
			
BESTE SAILEN AURREKONTUA			
18.000 €			
AURREKONTUA GUZTIRA			
18.000 €			



Udal-baliabideak (giza baliabideak eta baliabide teknikoak, udalaren instalazioak eta bitartekoak...)

L.2.13 EKINTZA

Sexu Aholkularitza eta Psiko Aholkularitza indartzea, LGTBI + kolektiboko gazteei orientabidea eta babesa emateko baliabide diren neurrian

Gaur egun Gasteizko Udalak LGTBI+ kolektiboko gazte-entzat zer baliabide dituen erakutsi nahi zaie batez ere gazte horiei, berorietara jo dezaten nahi dutenean, isilpeko izaeraz erabat eta profesionaltasun osoa bermatuz.

Kolektibo horretako gazteei zuzendutako zabalkunderako material espezifikoak landuko da.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Berdintasunerako Zerbitzua

	2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA			
3.000 €			
BESTE SAILEN AURREKONTUA			
AURREKONTUA GUZTIRA			
3.000 €			

L.2.14 EKINTZA

Hezkuntza-konpentsazioko programa (esperientzia pilotua)

Desabantaila-egoerak sortzen dira gure hirian, eta, inklusibotasunaren garapena zailtzeaz gain, zatiketa eragiten du horrek, bai gizartean eta bai hiri-espazioan. Testuinguru horretan, ekintza hezitzaile bat proposatzen da, eskola ardatz hartuta, elkarrekin lotutako hiru dimentsiotan esku hartzeko:

- Hezkuntza-konpentsazioaren beharra duten **ikasleekiko** esku-hartzea, Indize Sozioekonomiko eta Kultural (ISEK) baxua ikastetxeetan.
- **Familiekiko** esku-hartzea prestakuntzaren arloan, ISEK baxuko ikastetxeetan.
- **Ingurune**ko esku-hartzea (auzoan), eskolaz kanpoko jardueren ikuspegitik. Atal honetan parte hartzen du Gazte Planak, Pilar, Gazalbide eta Txagorritxu auzoetan oraingo.

Arduraduna: Hezkuntza Zerbitzua

Erantzunkideak: Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila

	2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA			
8.000 €	8.000 €	8.000 €	
BESTE SAILEN AURREKONTUA			
8.000 €	8.000 €	8.000 €	
AURREKONTUA GUZTIRA			
16.000 €	16.000 €	16.000 €	

L.2.15 EKINTZA

Adimena Zabaltzen

Beharrezko euskara-maila izan gabe Batxilergoari ekin behar dioten ikasleei (DBHko 4. mailakoak) edo Batxilergoa (1. Edo 2. maila) egiten ari direnei laguntzeko talde bat izango da, motibazio faltari eta eskolaldia uzteko arriskuari aurre egiteko asmoa duena. Bi formatutan gara daiteke: urtean zehar, edo opor garaian, modu intentsiboan (Aste Santuan, uztailean...).

Arduraduna: Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila

Erantzunkideak: Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Zerbitzua

2017	2018	
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
2.200 €	2.200 €	
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
2.200 €	2.200 €	

L.2.16 EKINTZA

Pausoz pauso

Harrera-baliabideetan dauden eta adinez nagusi diren gazteei zuzendutako ekintza da, eta gazte horiek aisialdiko jarduera normalizatueta sartzea du azken xede. Bitartekotzarako beste jarduera batzuk sortzea ere aurreikusten da, biztanleria orokorrari zuzendutako zirkuituetarako bidea egiteko, barneko bitartekotzaren bidez, udal-jardueretan sartuz eta horien parte-hartzea sustatzeko kirol-klubekin akordioak sinatuz.

Arduraduna: Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila

Erantzunkideak: Gazteria Zerbitzua

	2018	
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
	3.000 €	
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
	3.000 €	

L.2.17 EKINTZA

Informaziorako, motibaziorako eta bidea errazteko guneak

Gizarte Politiken Saileko baliabide eta programetan desabantaila-egoeran dauden gazteek elkarrekin bat egiteko guneak eta uneak antolatuko dira. Gazte Planeko programetako parte-hartzeari buruzko informazioa emango duten eta motibatzen lagunduko duten langile teknikoek bidez egingo da. (Hiru hilean behin egingo dira topagune horiek). Gazteen Argibideetarako Udal Bulegora bisitak ere egin daitezke xede horrekin.

Arduraduna: Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila

Erantzunkideak: Gazteria Zerbitzua

	2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA			
BESTE SAILEN AURREKONTUA			
AURREKONTUA GUZTIRA			



Udal-baliabideak (giza baliabideak eta baliabide teknikoak, udalaren instalazioak eta bitartekoak...)